UDAKO NARRAZIOAK

Ibaia

Joan Mari IRIGOIEN

Lehen atala: *Joan Mari Irigoienek idatzitako 'Ibaia' narrazioarekin hasiko ditugu aurtengo udako narrazioak. Lehen kapitulu honetan bere burua eta narrazioko beste hainbat pertsonaia nagusi aurkeztuko dizkigu kontalariak: bere familia, don Damian medikua, don Mariano botikaria... Urgain herian bizi dira guztiak.*

Ni ez naiz lurtarra jadanik.

Baina galdetzen didatenean nongoa naizen, denborak estalitako herri hartakoa naizela erantzuten diet, denborak eta urak.

Edo ametsei izenak jartzen hasita, Urgain-ekoa naizela esan dezaket, ametsets hauek guztiak uraren gainean eraikiak direnez gero.

Herri polita zen Urgain bere gainean, baratza eta galsoroen artean, eta plaza eder bat zuen, baita XVI. mendeko eliza dotore bat ere.

Eta ibaia.

Gu herri-inguruan bizi ginen, ibaiak ez oso urruti, eta nire lehen oroimenak, gerrarenarekin batera, ibaiari lotuta daude, udako egun beroetan ur sakar haietan bainatzen ginenean, sexeko lanetan lagundu ondoren, hobi bai.

Eskola amaituta gero, beti izaten zaitzen lanen bat: belarra moztea ez denean, zerriari edo oiloei jaten eman beharra; oiloak ez zirenean, garia jo...

Eta gorputza izerdi patsetan nuela, arropa erantzi eta saltoka sartzen nintzen uretara, plisti-plasta, anaiaren bat edo beste sarritan lagun nuela, guztiak batera izan ezean.

Eta izerdia eta zikina gainetik kenduta, azala aldatutako suge bat bezala sentitzen nintzen, urak biziberriturik.

Herri-ipuin eta mila kontakizunen artean, amari askotan entzun nion suge handiak zirela ibaiak, beste batzuetan suge bezain biziak, eta hauek bezalaxe, ez zutela ezer egiten bazean utziz gero, bai ordea haiek sakurtu edo haserraraziz gero, eta horregatik izaten zirela tarteka uholdeak, edo bekatu asko egiteagatik ere bai, eta horregatik bidali zuela Jainkoak uholde izugarri hura mundura, salbatzeko asmoz Noe eta bereak soilik salbatu zituen.

Baina sugeen inguruan geroago ere izango dut zer kontatu, eta jarrai dezadan aurrera.

Lehentxeago esan dut lau anaia ginela: Felipe, Pedro, Tomas eta laukoak.

Haiekin batera, gurasoak, osaba Luis, eta aitona Arsenio.

Aitona gaizki zegoen hezurretatik, reuma larri batek gazte-gaztetandik eta, eta halaxe ezagutu nuen nik, herrenka eta arrastaka noiznahi, baskila edo makuluak hartuta, abenduko batzu batean sartaldeko ilunak begiak bali zizkion arte.

Herriko medikuak don Damian zen izena: inguruotako klimak maztearen biriketako gaitzari on egingo ziolakoan, bi seme-alaba hagero, gerra amaitu ahala iritsi ziren biak Urgainera. Herritarrek, haiek, mesfidantzaz hartu zuten don Damian, elizan apenas ikusten zutelako, baina mediku ona ere bazen, eta bakina, denborarekin, Ama Birjinari kandela piztu baino lehenago, don Damianengana joko zuten, iritzi-miritzi ororen gainetik.

Hala ere, mediku ona zen arren, ezin guztiekin asmatu, eta horixe gertatu zitzaion don Damiani aitona Arseniorekin.

Eta aitonak herriko botikariarengana joko zuen.

Aitonak maiz aipatzen zuen nola garai batean itsu sinetsi izan zuen medikuengan, berauen hitz arraroekin-edo liluratuta.

Halakoa baitzen, baita ere, don Damian, bere profesioan, bi hitz xume elkarren ondoan ezin esan...

—Artritia eta artrosia dituzu, baita osteoporosi puntu bat ere, junturetako eta artikulazioetako ahuleziak areagotuta —esango zion aitonari—, eta horretarako erremediorik onena hauxe duzu... —eta beste izen bitxi eta bakanago batekin aterako zitzaion, auskalo ze botikarena, aitona harri eta zur utziz, baina baita itxaropentsu ere, aho-korapilo itxurako hark indar majiko berezko bat baleuka bezala, garai bateko sorginen hitz ahozkaezinen antzera.



Hasieran, bai, medikuak errezetatutakoek sendabidean jarri zutela iruditu zitzaion aitonari; gero, ordea, eguna joan eta eguna etorri berdintsu sentitzen zela igarri eta sinesmena galduz joan zen.

Harik eta don Mariano botikariak egun batean esan zion arte:

—Nik badut hori baino formula hoberik: belar batzuk hartu eta nik egindako pomada bat eman beharko zenuke... Baina ez ezer esan don Damiani.

Medizinari buruzko ikuspegi desberdinak baitzituzten don Marianok eta don Damianek: sendagilea, erlijio kontuetan ez bezala, guztiz ortodoxoa zen bere ogibideari lotutako aburuetan eta unibertsitatean ikasitakoak baino ez zituen hartzen aintzakotzat; don Mariano, aldiz, askoz malguagoa zen, eta zientziari bere begirunea bazion ere, gizaldiz gizaldi helarazitako eta emaitzen arabera sendotutako herri-jakintzan ere bazuen federik.

—Nola dago gure petrikiloa? —esaten zion maiz don Damianek don Marianori txantxetan.

Baina nahiz mediku, nahiz petrikilo, aitonari askoz hobeto joan zitzaion botikariarekin sendagilearekin baino, dudarik ez horretan.

Eta aitona botikara joaten zitzaion bakoitzean, don Marianok beti aurkituko zuen txolarteren bat harekin hitz egiteko honetaz eta hartaz, baita igurtzitxoren bat emateko ere han eta hemen, berak egindako pomadarekin.

Eta bide hartatik, lagun-lagun egin ziren.

Handik aurrera, behin baino gehiagotan lagundu izan zion aitonak don Marianori sendabelarren bila, ibai ertzera ez zenean, mendi aldera, poliki-poliki, astiro, aitona gehiegi neka ez zedin.

Eta ni, ahal nuenean, haiekin.

Ondo baino hobeto tratatzen baininduen don Marianok.

Aurrerago, aitona okerragotu eta farmaziara ni neu bidaltzen hasi zitzaidanean, irribarre batekin hartuko ninduen don Marianok, eta hiruzpalau goxoki emango zizkidan eskura, eukaliptozkoak.

Don Mariano, bestela, justu gerra hasi aurretik alargundu, eta etxeko martxa zeraman izeba ezkongabe batekin bizi zen.

—Berriro ezkondu beharko huke —esaten zion izebak.

—Ni ezkondua nago oraindik, inoiz baino ezkonduago, izeba... —erantzuten don Marianok.

Botikariaren penetako bat bere emazte maite harengandik semealabarik ez izatea izan zen, eta horregatik jarri ninduen, beharbada, han farmazian berarekin lanean.

Ibaian igeri nenbilen egun batean, ahots bat entzun nuen:

—Leon!

Larrugorri nengoen eta lehenengoan lotsatu egin nintzen.

—Hirekin hitz egin nahi nikek.

Eta uretatik irteten nintzelarik, burua beste aldera jiratu eta bere asmoen berri eman zidan.

Eta ni, pozez gainezka.

Gero, zuzenean joan ginen etxera.

Aitak ez zuen ezetzik esan.

Bihar jarraituko du